



**Bilboko
Elizbarrutia**
DIÓCESIS DE BILBAO

JESUSEN TALDEA GARA

ERANSKINA KATEKISTA ETA ERAGILEENTZAT

**Delegación de Anuncio y Catequesis
Fede- Zabalkunde eta Katekesirako Ordezkaritza**

ERANSKINA KATEKISTA ETA ERAGILEENTZAT

Sarrera

Lagungarri hauek batzar hauek gidatuko dituzten katekista eta eragileentzat dira. “Jesusen taldea gara” 1. gai honetan landuko den ebanjelioko txatala (Mk 1, 16-18) azaltzea du helburu. Katekisten saioaren xedea ez da berehalako ‘errentagarritasuna’ izatea. Hau da, lehentasuna ez da pasartearen oinarrizko alderdiak ezagutzera ematea gero haurren katekesiko saioetan errepikatzeko. Bestelakoa da asmoa, pertsonalagoa. Katekisten saioetan, elkartean duten egitekoa ez ezik, katekista bera, pertsona da kontuan hartzen dena. Ebanjelioaren azalpenek, azken batean elkarre irakurketa gidatu nahi dute, elkartean, beste batzuekin batera, katekistak fedearen aldeko hautu pertsonalean sakon dezan. Taldean egindako prozesu hauek, beren egitekoan berresteaz gainera, fedea aukera heldu eta arduratsu bezala sentitzera eta bizitzera bultzatu nahi dituzte katekistak.

Katekesi honen edukia hiru zatitan banatuta dago: azalpenak pasarteari, taldearen hausnarketa eragingo duten galderak eta bakarka edo elkartean, ebanjelioan baliatuz, otoitz egiteko oharra. Bakoitzaren aurretik, oinarrizko pare bat ideia azaltzen dira, edozein idazkirentzat baliagarri, eta nahi izanez gero, irakurri gabe utz daitezke.

Aurretiko ideiak

Ebanjelioa irakurri eta ulertzeko aurretiazko bi gai kontuan hartu behar ditugu; funtsezko kontuak dira ebanjelioko edozein idazki irakurtzeko. Lehenengoa, orokorra da, eta ebanjelioan nolako idazkiak aurkituko ditugun aipatzen du. Bigarrenak, edozein idazki irakurtzeko baliozkoa den giltza ematen digu. Nahi izanez gero, sarrera hau alde batere utzi eta zuzenean idazkiaren azalpenetara jo daiteke.

Hona hemen lehen kontua. Zer dira ebanjelioak? Hasierako elkarteak Nazaretoko Jesus Mesiasi buruz ezagutu eta bizi dituen tradizioen garapena jasotzeko idazten dituen idazkiak dira ebanjelioak. K.o. 70. urtearen eta I. gizaldiko azken urteen artean idatzi zirenez, delako tradizio horiek Jesusen jarraitzaileek aldi horretan jaso eta garatu zituztenak dira. Askotariko tradizioak dira. Jesus bizi zeneko kontuak jasotzen dituzte batzuek eta beste asko bere berpizkundearen ondorengokoak dira. Jesus Berpiztuaz eta elkartean bizirik den bere Espirituaz dituzten esperientzien emaitza dira. Bi tradizioak elkarri lotuta daude eta bigarrena lehenetik baizik ezin da ulertu. Hau da, Espirituak eragindako esperientzia eta bizipenak Nazaretoko Jesusen zekitenetik ulertzen dira bakarrik. Egia da, baita ere, Pazkoaren esperientziak Nazaretoko Jesusen nortasunaren hainbat alderdi argitzen diena.

Ebanjelioek tradizio hauek jasotzen dituzte. Askotariko lagungarriak jasotzen dituztela esan daiteke; Nazaretoko Jesusengana gerturatuko dira batzuk eta Berpiztuaren Espirituarekiko bizipenen emaitza izango da beste hainbat. Beraz, ebanjelioek oroitzapenez beteriko istorioez gainera, egundoko balio sinboliko eta metaforikoa duten istorioak ere biltzen dituzte. Elkarteak une horretan Jesus berpiztuarekin bizi dituen esperientziak era sinbolikoan adierazten ditu hizkera metaforikoak. Badira gehien bat Nazaretoko Jesusen istorioak kontatzen dizkigutenak, istorio erabat metaforikoak eta biak nahastuz dituztenak. Ezinbestekoa da hau kontuan hartzea ebanjelioak irakurri, ulertu eta beraiekin otoitz egin ahal izateko.

Bigarrenik, ez dugu ahaztu behar ebanjelioak ez daudela guri, XXI. gizaldiko pertsonoi zuzenduta, ez zituztela guretzat idatzi. Hasierako elkarteetako kide ziren pertsonen idatzi zizkieten. Aspaldi bizi izan ziren gizon eta emakume haiek beste hizkuntza batzuek mintzo ziren eta gure kulturetatik guztiz desberdinak zirenetan bizi. Iragana, herrialde arrotza dela diote. Horrela da. Kontuan hartu behar dugu Jesus eta ebanjelioak kultura judukoak direla. Agertuko da hori azalpenetan. Honi lotuta, eta kontu sinpleagora joz, aipatzekoa da testu jakin bat ulertzeko ezinbestekoa dela bere testuingurua ezagutzeko: non dagoen kokatuta, zer datorren aurretik eta zein jarraipen duen. Testuinguru honek hainbat argibide eman diezaguke ebanjelioak geuretzat idatzita baleude bezala irakurtzeko. Izan ere, ez zizkiguten geuri idatzi, baina geuretzat ere idatzirik daude. Bi aholku hauek kontuan hartuta, azter dezagun gauko txatala: Mk 1, 16-18.

I.Mk 1, 16-18 pasartearen azalpenak

Non kokatuta dagoen ikusiko dugu lehenik. Idazki hau, ebanjelioaren hasieran dago. Ebanjelioen hastapenek hainbat argibide ematen digute gero kontatuko dutenari buruz. Adu guztien arabera liburuaren izenburutzat jo daitekeen lehenengo txatalaren ostean (“Hona hemen nola hasi zen Mesias eta Jainkoaren Seme den Jesusen berri ona”), Markosek Joan Bataiatzailearen eta Jesusen bataioaren kontaketa egiten du hitzaurre erara.

Basamortuko esperientziaren ostean (12-13 txatalak) eta Joan giltzapean sartu ondoren (garrantzitsua, ebanjelio osoan iraungo duen gatazka eta tentsiozko giroa ulertzeko), Jesusek bere ministerioari ekin zion. Galileara joan zen, leku baztertueta, erdigunetik urrun zeuden lekuetara, eta inaugurazio-aldarrikapena egin zuen: “Betea da garaia, eta gainean duzue Jainkoaren erregetza. Bihozberri zaitetze eta sinetsi berri ona”. Dagokigun idazkia txatal honen atzetik dator.

Testuinguruak informazio garrantzitsua ematen digu Jesusi buruz. Lehenik eta behin, lankidetza bilatzen du bere egitekorako. Jesusek ez du bakarrik jarduten, beti du norbait ondoan, adiskideak eta ikasleak nahasten ditu bere jarduketan. Jesusentzat, laguntzaileak ezinbesteko dira. Bizirik zela behar izan zituen eta zer esanik ez gaur egun. Gaur ere ezinbestekoak ditu lankideak. Hori dela-eta, Jesusek egiten duen lehen gauza, taldea osatzea da.

Hori esateaz batera sortzen da galdera: taldea osatu, zertarako? Zertarako taldea eratu? Nolako taldea gara? Jesusen hasierako mezu horrek, eta zehatzago, Jainkoaren erreinuaren etorrerak, ematen digu hori ulertzeko giltza.

Laburbilduz, Jainkoaren erreinua, irudi, ideia edo kontzeptua dela izan daiteke eta, azken batean, Jainkoak Israel herriarentzat, eta gizadi osoarentzat, dituen helburu, amets eta nahiak jasotzen ditu. Jainkoak justizia eta bakea, guztientzako ongizatea ezartzea ahalbideratuko du; gosea, gerra eta sufrimendu oro desagertu egingo dira. Jainkoak, gure artean duen agerpenak, guzti hori ahalbideratuko du. Jainkoak errealitate hori gorde eta gauzatu egingo du. Nahi hori haragi egiten da. Jesusekin. Jesusek agertzera emango du erreinu hori, agertzera emango du Jainkoa. Epea bete da. Jesusen bizitza, Erreinuak bide ematen dion Jainkoaren agerpena egia bihurtzea izango da. Beraz, Erreinuaren auziarekin bat egitera deituak gara. Taldea osatzen dugu Jainkoak duen egitasmoa, ametsa, nahia ezagutzera emateko: Jainkoa Errege eta Jaun bakartzat izango duten emakume eta gizon askeen gizadi berria eratu.

Ez da egiteko erraza. Taldea osatzea dagokienak delako gaitasun bat, delako prestaketa bat izan behar dutela, klase aberatseko, apaiz klaseko kide izan behar duela..., pentsa liteke, baina ez da horrela. Jesusek ez zuen profesional ospetsurik edo pertsona aberats edo ahaltsurik aukeratu, ez zituen beren burua on eta garbitzat zutenak edo horren atzetik zebiltzanak (fariseu eta saduzearrak) edo apaizak deitzen. Jesusek langileak, pertsona arruntak, eguneroko ogia beren eskuez irabazten duten pertsonak, nahi ditu bere talderako; ez dira ez aberatsak, ezta ahaltsuak ere, eta ez dute aparteko prestaketa edo heziketarik. Gaur zeu eta neu gara aukeratuak. Harrituta? Horrelakoa da Jesus. Deia egiten den lekuak erakuts diezaguke Jesusen deiaren “normaltasuna”.

Jesus ez doa judaismoarentzat eremurik sakratuena den Tenplura jendearen bila; laku ingurura doa, jendea lanean dagoen lekura. Jainkoak, Jesusek bere garaian egin zuen bezala, bere lantaldeko kide izatera deitzen zaitu, zeure lanean, zeure eguneroko egitekoan, zailtasunen, poztasunen, presen, bizitzako gorabeheren erdian. Zeuri ere deitu egin dizu bere taldeko kide izan zaitzen.

Idazkiaren amaieran, harrigarri gerta dakigukeen eta galderaren bat ekar dezakeen esaldia agertzen da: “Haiek, besterik gabe, sareak utzi eta jarraitu egin zioten”. Pentsatzekoa da, gauzak ez zirela Markosek kontatzen duen bezain arin gertatuko. Pentsatzekoa da, Jeesek aurretik ezagutzen zituela Simon eta Andres, beren adiskide egin zela eta, apurka-apurka, konbentzitu egin zituela bere taldean sartzeko.

ANEXO PARA LAS CATEQUISTAS Y DINAMIZADORAS

Geuri ere horrelako zerbait gertatzen zaigu. Erabaki garrantzitsuak ez dira berehala hartzen, denbora behar izaten da. Jesusek esaten zienaz liluratuta geratu ziren anaiak; gogoko zuten Jesus eta bere egitasmoa; erakargarri gertatzen zitzairen Jainkoaren Erreinua onartzeko, iragartzeko eta jendea egitasmo horretara biltzeko prest zegoen taldeko kide izatea. Benetan, "berekala" aipatzen du prozesuaren azkena, behin betiko baietza emateko erabakia hartua dagoenean. Noizbait bizi izan ditugun une bikainak gogorarazi diezazkigu: argia biztu eta bidea inoiz baino argiago ikusten dugunean, dena barria izango balitz eta lehen aldiz gozatuko bagenu bezala.

Hausnartu, landu eta erabakia hartu ondoren, Pedro eta Andresek sareak utzi eta Jesusen atzetik jarraitzen dute. Banan-banan azaltzea merezi duten bi ekintza dira. Anaiak sareak atzean uzteaz batera, atzean uzten dute ordura arteko bizimodua. Sareak eduki sinboliko eta existentzial aberatsa duen metafora bezala ulertu behar ditugu. Ordura arte, lanerako erabili zituzten sareak. Sareak utzi eta, honekin batera, izateko, munduan egoteko, pentsatzeko, errealitatea ikusteko eta sentitzeko era uzten dute. Jesusen taldeko kide izateak berriro sozializatzeko, bizimodu berriari ekiteko erronka onartzea dakar, izan ere, Joanen esanetan, Jesusen atzetik jarraitzea, berriz jaiotzea da. Sareen irudiak adierazten digu guzti hori. Honetan ere gauza bera gertatzen zaigu. Jesusek dei egiten digu gure sareak, inguratzen gaituen munduari kateatuta gauzkatzen sareak atzera utz ditzagun. Berriz jaiotzeko, pertsona berri izateko, gure bost zentzumenak norabide berrian, Jesusengana garamatzen bidean jartzeko dei egiten zaigu. Honetan datza Jesusen taldeko kide izatea: munduaren errealitatea, historia eta inguruko pertsonen bizitza, beste era batera, Jesusen erara, ikustean, entzutean, usaintzean, sentitzean eta ukitzean.

Azkenik, ikasleek Jesusen atzetik jarraitzen dute. Hainbeste aldiz entzun dugu non oharkabe geratu den. Jesusen taldeko izatea, Jesusen atzetik jarraitzea dela ematen du, ez dirudi sinestea denik garrantzitsuena. Jesusen taldeko izateko funtsezkoena, erabakigarriena, Jesusen atzetik jarraitzea da. Jesusengan sinestea Jesusen atzetik jarraitzean datza, hau da, buruari ez ezik, oin eta eskuei lotutako kontua da. Jesusen taldeko kide izatea, Jainkoaren Erreinuara garamatzen bidetik Jesusen atzetik jarraitzea da.

II. Taldean elkarrizketan jarduteko

- Ebanjelioko idazkiaren azalpenen ingurukoak batera jarri. Taldean irakurri eta horren inguruan hitz egin.
- Jesusi buruz hitz egin. Ez da asko jakin beharrik Jesusez hitz egiteko. Horixe da garrantzitsuena. Miresten eta maitatzen ditugun pertsonen bezala hitz egin Jesusez.
- Taldeari buruz elkarrizketan jardun. Gaur taldeaeratzeko dauden zailtasunak, taldekide izan daitezkeen pertsonak, deialdia egiteko eta taldera erakartzeko bidea, taldekideak zaintzeko modua.
- Jesusen atzetik jarraitzea ez da erraza, hainbat sare utzi behar dugulako alde batera, batere errazak ez diren bideetatik eta benetako konpromisoa hartzea dakarten aukerak eginez joan behar dugulako bere atzetik
- Elkarrizketan jardun Jesusen egitasmoari, Erreinuari buruz. Zertan datza? Zer egin gure taldeak, gure herriak, gure parrokiak Jesusen eta bere egitasmoaren gero eta antz handiagoa izan dezan? Zer egin behar dugu? Zer ez dugu egin behar?

III. Pasartearekin otoitz egiteko

Hona hemen hainbat ohar idazkiarekin otoitz egiteko. Egokia litzateke elkarte otoitza egitea baina bakarka otoitz egiteko ere baliagarri izan daitezke.

- Buruz buru aurkituko gara Jesusekin, aurpegira begiratuko diogu. Irudikatu Jesus bere lehen urratsetan: Galileara doa; etxea eta laku ingurua uzten ditu, bere kezkei buruz hitz egiten die batzuei, e.a.,... Bere zailtasuna sentitu eta Jesus miretsi.
- Bere deia sentitu. Jesusek Berri Ona dakar eta neuri eta gizarteari eskaintzen digu. Entzun, onartu, hausnartu... Nolako izango da Jainkoaren Erreinu edo gizarte berria?
- Jesusen deia berezia da. Dei hori ez da beste bizitzarako salba gaitetzen. Dei hori ez da onak izan eta zerua irabaz dezagun. Deialdia egiten dio jendeari, Jainkoaren Erreinoa hartzeko presta daitezten. Bihotz-berritu eta hemen eta orain Jainkoaren Erreinoa eraiki dezagun deitzen gaitu. Jesusi begiratu.
- Nire sareak, lotzen nauten eta, askotan, arnasa hartzea, neu izatea eragozten didaten sareak atzean utzi. Zein sare utzi behar dut alde batera Jesusen atzetik jarraitu ahal izateko?
- Eta Jerusalemearaino joan ziren bere atzetik. Jesusen taldea dira. Batzuetan ez zuten ulertu, baina bere atzetik jarraitu zuten. Maite zuten eta maite zituela sentitzen duten. Zeu ere bere taldeko kide zara.
- Jesusi berriro begiratu, begietsi...Taldea sortzeko burua eta balorea izan zuen eta horixe egin zuen beste ezer baino lehen. Asko eskatu zien eta, zalantzarik gabe, Jesusek apurka-apurka bereganatu zituen. Prozesu luzea izan zen, elkarriketan oinarritutako hartu-eman estua ekarri zuen prozesua. Miretsi Jesus eta bere taldekideak. Talde horretan izateko nahia adierazi.

Entzuteko.
Klikatu irudiaren gainean.

